

210. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Etxebizitza-politika:
herritarren
bizi-kalitatea ardatz**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Elkarriketa	3
Egindako bidea.....	6
Eskaintza berria	8
Gazteen emantzipazioa.....	10
Etxebizitza-bulegoa	12
Aplikazio berria	14

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



“Modelo eta tipologia desberdineko
babestutako etxebizitzaren eskaintza jarraitua
egitea da gure helburua”

Nagore Alkorta
Azpeitiko alkatea

Denontzako Azpeitia egin
nahi dugula errepikatzen
dugu eta denek bertan
bizitzeko aukera izatea
bermatzea dagokigu

Etxebizitzaren inguruko azterketa, alokairurako laguntzak, etxebizitza bulegoa... herritarren etxebizitza beharrari erantzuteko azterketak eta neurriak hartu ditu Azpeitiko Udalak. Aurrera begira, ia irekitako etxebizitza bulegoaren bidez, herritarren beharren inguruan sakondu eta politika berriak abian jartzeko burua martxan du Nagore Alkorta alkatea.

Etxebizitza planetik abiatuta, herritarren etxebizitza beharrari erantzuteko neurriak hartzen ari zarete.

Azpeitia 2030 Plan Estrategikoa egin genuenean etxebizitza plan baten beharra azaleratu zen. Horri erantzunez egin genuen etxebizitza plana eta horren baitan, zehaztutako erronkei heltzeko eta herritarren etxebizitza eskubideari erantzun ahal izateko. Abiapuntu bat izan zen plana osatzea; etxebizitza politikan sakondu eta neurri berritzaileak abian jartzeko inflexio puntua.

Etxebizitza bat eskuratzeak eragin zuzena du herritarren bizi kalitatean.

Etxebizitza bat eskuratzeak, izan alokairuan edo erosita, eragin zuzena du herritarren edo herriko familien egoera ekonomikoan. Erabat baldintzatzen du. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu gai honi heltzea eta baliabideak eta zerbitzuak eskaintzea. Denontzako Azpeitia egin nahi dugula errepikatzen dugu; denek bertan bizitzeko aukera izatea ere bermatzea dagokigu horretarako.

Etxebizitza bulegoan, informazioa ematetik harago, etxebizitza politikak garatu eta etxebizitza plana betetzeko lanean ari gara

Etxe hutsetatik abiatzen dela etxebizitza politika diozue.

Gure helburu nagusia herrian ditugun etxe hutsak merkaturatzea da. Etxebizitzek funtzio sozial bat dute, eta etxe hutsak izateak kostu bat du guztiontzat. Horregatik, besteak beste, bitartekaritza programa edo etxebizitzaren parkearen jarraipena egiteko aplikazioa jarri ditugu martxan.

Etxebizitzaren arloan pauso bat gehiago emateko helburuz, Etxebizitza bulegoa ireki zenuten duela urtebete inguru. Zer-nolako balorazioa egiten duzue?

Etxebizitza bulegoa Etxebizitza Plana aurrera eramateko tresna edo baliabide publikoa da. Etxebizitzaren arloak ertz asko ditu, eta kasu askotan herritar askorentzako konplexuak edo ezezagunak direnak. Horregatik, garrantzitsua da guretzat etxebizitzaren inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzen duen zerbitzu publiko bat izatea. Urtebete honetan herritar ugariri eskaini zaie zerbitzua eta horrek erakusten du behar bat bazegoela. Hala ere, informazioa ematetik harago, etxebizitza politikak garatu eta etxebizitza plana betetzeko lanean ari gara.

Etxebizitza bulegoaren bidez alokairua sustatzeko helburuz bitartekaritza zerbitzua ere jarri da.

Alokairuan etxe bat hartu nahi dutenen eta alokairuan etxebizitza jarri nahi dutenen arteko zubi lana edo lotura egiteko zerbitzua da. Etxe hutsak mobilizatzeko helburuz sortutako zerbitzua da. Etxebizitza hutsak mobilizatzea ez da egun batetik bestera egiten den kontu bat, baina pixkanaka herrian 500dik gora etxebizitza huts izateak duen eraginaz jabetzen joan behar dugu.

Etxebizitza parkearen jarraipena egin ahal izateko aplikazioa ere sortu duzue

Askotan azterketak egiten ditugu, baina hori momentu bateko argazki bat izan ohi da. Etxebizitzaren arloan sortu dugun aplikazioaren bidez, udaletxeak dituen datuen bidez (ur kontsumoa, errolda...) etxebizitza parkearen jarraipena egin dezakegu, eta hori ezinbestekoa da guretzat. Hala, datu eguneratuak edozein unetan eduki ahal izatea neurriak eta neurrien egokitasuna zehazteko ezinbestekoa da.

Garrantzitsua da guretzat etxebizitzaren inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzen duen zerbitzu publiko bat izatea

Abiapuntua izan zen etxebizitza plana osatzea; etxebizitzan sakondu eta neurri berritzaileak abian jartzeko inflexio puntua

Etxebizitza publikoen baitan molde desberdinetako eskaintza egiteko asmoa ere azaldu duzue.

Aurreikuspenak betetzen badira, Esklabetan gazteen emantzipazioa laguntzeko edo errazteko 48 etxebizitza izango ditugu alokairu sozialean urte bukaerarako. Hori Udalak eta Etxebizitza Sailak egindako hitzarmen baten ondorioz gauzatuko da. Bide horretan, sail berarekin Elizkalean erosita ditugun 4 etxebizitza bloketan 16 etxebizitza egiteko hitz egiten ari gara.

Azken etxe horiek, alokairua eta gazteen emantzipazioa errazteko aukerak eskaintzeaz gain, Alde Zaharraren biziberritzean eragin zuzena izango du.

Santutxon ere babestutako etxebizitzak egiteko lehen pausoa eman da plan bereziari behin betiko onarpena emanda.

Modelo eta tipologia desberdineko etxebizitzaren eskaintza egitea da helburua. Alokairukoak, babestutakoak, adinekoentzako tutelatutakoak, gizarte beharrak dituztenentzako Goiko kaleko 4 etxeak, esan bezala eskaintza zabala da helburua. Esklabak-Iturzuloko babestutako etxebizitzak entregatu berri ditugu, baina ulertzen dugu horrekin ez diogula behar osoari erantzuten, ez kopuruan ezta etxebizitza tipologiarekin ere eta eskaintza jarraitua egin behar dugula. Horregatik, etorkizuneko proiektuen tramiteak aurreratzen hasita gaude.

Etxebizitza babestuak herritarren beharrei erantzuteko

Azpeitiarren etxebizitza premiei erantzuteko hainbat proiektu abian jarri eta neurriak hartu ditu Udalak, batik bat, 2016an eta 2021ean egindako etxebizitzari buruzko azterketen emaitzak kontuan hartuta. Horien bidean, Esklabak-Iturzulo eremuko lehen fasea jarri zuen abian 2019ko udan, etxebizitza politikan eragiteko tipologia desberdinetako etxebizitzaren eskaintza jarraitua egiteko konpromisoaren baitan.

Lehen fasean 62 etxebizitza eraiki ziren, eta orduko eskaera kopurua aintzat hartuta, bigarren fasea ere abian jartzea erabaki zuen Udalak; bigarren fase horretako 67 etxebizitzak.

Neurri horien baitan zeuden Etxebizitza Plana egin eta etxebizitza-bulegoa abian jartzea ere, eta halaxe egin da: Etxebizitza Planean herriko etxebizitza politikan landu beharreko ildoak jaso ziren, eta herritarrei horri buruzko informazio egokitu, zuzen eta pertsonalizatua emateko zabaldu zen etxebizitza bulegoa.

Proiektu garrantzitsua da; izan ere, etxebizitzek "funtzio soziala" dute eta herritarren bizi-kalitetea

Guztira, 129 etxebizitza babestu egin dira Esklabak Iturzulo eremuan

eragiten du zuzenean horrek. Bide horretan aurrera begira, urte bukaerarako Esklabetako eraikinean gazteen emantzipazioa errazteko helburuz egiten ari diren alokairurako 48 apartamendu izango dira.

Guztira, 129 etxebizitza babestu egin dira Esklabak Iturzulo eremuan, 16 milioi euro inguruko inbertsioa eginda.

Aurrera begira, udalak etxebizitza eskaintza jarraitua egiteko konpromisoa du, eta helburu horren baitan, hainbat proiektu berri lantzen ari da. Besteak beste, Alde Zaharrean alokairurako 16 etxebizitza egitekoa eta Santutxon babestutako 28 etxebizitza egitekoa.

Esklabetako alokairu soziala


Udalak eraikin historiko bat zaharberritu eta udalerrian apartamentuen eredu berri eta berritzailea abian jartzea erabaki zuen 2021ean. 6 milioiko aurrekontua duen proiektu hau, urte amaierarako amaituta egotea aurreikusten da. Azpeitiko Udalarentzat oso urrats garrantzitsua da hau etxebizitza politikaren baitan: Esklabetako komentuan erabiltzen ez den zatia zaharberrituko du, eta udalerrian apartamentuen eredu berria eta berritzaileari esker, 2023aren amaierarako, gazteentzako eta merkatu librean etxebizitza bat eskuratzeko orduan zailtasun gehien dituzten kolektiboentzako alokairuko apartamentuak egingo dira.

Proiektua Azpeitiko Udalak Etxebizitza Sailari lagatako Esklaben antzinako komentuko hegalean kokatu da, eta bizitoki-erabilerarako xedea du. Horrela, 7.951 metro koadroko espazio horretan 48 apartamentu sortuko dira. Zuzkidura-bizitokiak gazteen emantzipaziorako bide emateko formula egokia dira; gazteek hilean ordainduko duten kanonak ez du inolaz ere gaitutuko haien diru-sarreraren % 30.

Obra hauen bidez etxebizitzak sortzeko modu berri bat garatu da; izan ere, erabiltzen ez ziren eraikinak berrerabiliko dira, lurzoru gehiago kontsumitu behar izan gabe. Udalak bultzatzen duen etxebizitza-politika publikoetan urrats garrantzitsua da, dudarik gabe. Azpeitiarrak beren bizi-proiektuak herrian gauzatzen laguntzeko beste urrats bat da.

Obra urte amaierarako bukatzea aurreikusita dago, eta honako hauek dira esleipenerako irizpideak: Etxebiden izena emanda egon eta eskakizunak betetzen dituztenak –bizikidetzak-unitateak 4 kide baino gehiago ez izatea, etxebizitzarik jabetzan ez izatea eta urtean haztatutako 3.000 eta 39.000 euro bitarteko diru-sarrerak izatea–. Une hauetan, Azpeitian 588 etxebizitza-eskatzailerik daude; haietatik, erdiak, gutxi gorabahera, % 46,6k, errentamendu-erregimenean egiten dute

Urtea bukatzerako gazteen emantzipazioa errazteko Esklabetako alokairu sozialeko 48 etxebizitza bukatzea aurreikusten da



Santutxon babestutako 28 etxebizitza egitea aurreikusten du udalak



Babes ofizialeko 10 etxebizitza eta 18 etxebizitza tasatu egin ahal izateko plen bereziari behin betiko onarpena eman dio udalak. etxeak egitearekin batera, urbanizazioa egokitu eta Santutxo eta Alde Zaharraren arteko konexioa hobetuko da, besteak beste, igogailu batekin

Azpeitiarren etxebizitza beharrari aurre egiteko helburuz, beste pauso garrantzitsua eman zuen Azpeitiko Udalak, martxoko ohiko plenoan. HAPOn 4.1. Santutxo eta 1.2. Done Jakue kalea, 3 azpierzemuetarako Plan Bereziari behin betiko onarpena eman zitzaion; eta, beraz, Santutxon babestutako 28 etxebizitza egiteko eman beharreko pausorik garrantzitsuen eman da. 4.500 metro koadroko eremuan 10 Babes ofizialeko eta 18 etxebizitza tasatu egingo dira.

Proiektua hasierako fasean dago, orain PAU-a egin behar da. Horren ostean lursailen partzelazioa egin eta etxebizitzak eraiki ahal izateko lehiaketa publikoa jarriko da martxan. Beraz, datorren agintaldian gauzatuko den proiektua izango da.

Etxebizitza babestuen eskaintza horren bidez, azpeitiarren etxebizitza premiari erantzungo zaio, Santutxoko auzoko irisgarritasuna hobetuko du eta Alde Zaharra biziberritzeko beste pauso bat emango da.

Santutxon 28 etxebizitza eraikitzearekin batera, eremu hori eta Alde Zaharra konektatzeko eta irisgarritasuna hobetzeko eskuhartzea ere egingo da. Eskailerak hobetzeaz gain, igogailu publikoa egitea ere aurreikusten da, horren bidez bi guneak gerturatzeko eta herritarren irisgarritasuna erraztu eta hobetzeko.

ETXEBIZITZA ESKUBIDEA AHALBIDETZEN

Santutxoko proiektua azken urteetan babestutako etxebizitza politiken baitako urrats bat gehiago da. Udalaren ildo estrategikoa bilakatu da etxebizitzena

Eskaintza honen bidez, azpeitiarren etxebizitza premiari erantzungo zaio eta Alde Zaharraren biziberritzea sustatuko da

eta Etxebizitza Planean markatutako bideorriari jarraitzen ari da.

Azken urteetan tipologia eta babes desberdinetako etxebizitzak eskaini ditu udalak. Alde Zaharreko hainbat bloke zahar berritu eta babestutako etxebizitzak egin dira, Esklabak-Iturzulo eremuko babestutako etxebizitzak edo urte bukatzerako abian izango diren esklabetako alokairuko 48 etxebizitzak dira horren adibide. Neurri guzti horiekin gazteen emantzipazioa errazteko neurriak hartzen ari da udala.



Gazteen emantzipazioa eta Alde Zahararen biziberritzea bultzatzeko proiektuak



Udalak 5 etxebizitza bloke erosi ditu Alde Zaharrean, alokairura bideratzeko helburuarekin.

Apaiz etxearekin, Eliz kaleko etxebizitza tutelatuekin eta Errebaleko blokearekin hasitako bideari jarraitzeko helburuz, Azpeitiko Udalak bost etxebizitza bloke berri erosi ditu Alde Zaharrean. Lau bloke Eliz kalean erosi ditu, etxe tutelatuen segidan; horietako bi eraitsita daude eta segidako beste bi ere erositako ditu. Alokairurako 16 etxebizitza egitea aurreikusia du bertan udalak. Horretarako, elkarlanean ari da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, etxebizitza eta garraio Sailarekin, alokairu sozialeko etxebizitzak izatea baita udalaren helburua.

Etxebizitza hauek Alde Zaharra biziberritzeko asmoz gain, Esklabetako alokairu dotazionalekin batera, gazteen emantzipazioa errazteko aukera izango dira.

Gazteen emantzipazioa adina atzeratzen ari da eta horri aurre egiteko eta etxebizitza duinak prezio eskuragarrietan eskaintzeko asmoz, alokairu sozialeko etxebizitzak eskaintza berri bat abaituko du udalak. Esklabetako alokairu sozialeko 48 etxebizitza 2023 bukaeran bukatuta izatea aurreikusten da eta eskaintza horri jarraikotasuna emateko helburuz aurreikusten dute Eliz kalean alokairuko 16 etxebizitza egitea.

Gazteen emantzipazioa errazteaz gain, Alde Zaharra biziberritzeko etxebizitzak berritzea estrategikoa da. Alde Zaharra bizigarriagoa eta erakargarriagoa izateko udala hartzen ari den neurri ezberdinen artean dago etxebizitzak berritzea eta babestutako etxebizitzak eskaintza bertan ere egitea. Izan ere, etxebizitza berri horiek egitean, babestutako 40 etxebizitza berrituta izango dira Alde Zaharrean, gazteen emantzipazioa sustatzeko.

GOIKO KALE 2an, 4 ETXEBIZITZA

Udaletxearen segidan dago Goiko kaleko bigarren zenbakia eta etxe bloke hori ere erositako du udalak. Bertan, alokairurako 4 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du. Gaur egun, gizarte beharrak aztertzen ari da etxebizitza horien izaera zehazteko, baina gizarte babeserako etxebizitzak izatea aurreikusten du.

Eliz kalean, etxebizitza tutelatuen segidan alokairurako beste 16 etxebizitza egitea aurreikusten du udalak

Etxebizitzen alokairurako laguntzak abian dira

Azpeitiko Udalak 2013. urtetik abian ditu etxebizitzaren alokairurako laguntzak eta aurtengo deialdia ere abian du. Laguntzaren horren bidez, gazteen emantzipazioa bultzatzea edo erraztea izan da helburua hasieratik, baina beharrak ikusita beste hainbat sektoretara ere zabalduz joan da laguntza. Hala, gaur egun, mugikortasun urria duten herritarrek, bananduta edo dibortziazatuta daudenean, 70 urtetik gorakoek eta alargunek ere jaso dezakete laguntza, badiltzak betetzen badituzte. Urriaren 15a izango da aurtengo diru laguntzen eskaera egiteko azken eguna.

Gazteen kasuan, eskatzaileentzat Eusko Jaurlaritzaren Gaztelagun programako laguntza-eskaera egina izatea ezinbestekoa da. Laguntza horren osagarria baita udalaren laguntza. Gaztelagun laguntza ahal bezain pronto tramitatzea gomendatzen zaie alokairuan bizi direnei.

LAGUNTZAREN XEHETASUNAK

- Alokairua ordaintzeko, gehienez, 350 euro emango ditu udalak, eskaera bakoitzeko.
- Alde Zaharra Biziberritzeko prozesuaren baitan, guneretan alokairuan bizitzen jartzen direnek 50 euro gehiagoko laguntza jasoko dute. Beraz, Alde Zaharrean etxea alokatuz gero, gehienez, 400 euroko languntza izango dute.
- Alokairuaren errentak 650 euro baino gutxiagokoa izan behar du.
- Laguntza hamabi hilabetekoa izango da.

DIRU-SARREREN ARABERAKO LAGUNTZAK

Dirulaguntzaren zenbatekoa, eskatzaileen diru-sarreraren arabera ezarritako atal sistema baten oinarritzen da, atal bakoitzari portzentai bat

0,00 € - 15.000,00 €	15.000,00 € - 21.000,00 €
⇓	⇓
alokairuaren % 60	alokairuaren % 50
21.000,00 € - 30.000,00 €	30.000,00 € - 35.000,00 €
⇓	⇓
alokairuaren % 45	alokairuaren % 35



Etxebizitza-bulegoa

Enparan kaleko 34. zenbakiko bulegoan etxebizitzaren inguruko informazioa eta aholkularitza zerbitzua jaso dezakete herritarren iazko maiatzaz geroztik. Bulego hori Etxebizitza-plana garatzeko tresna ere bada, eta Azpeitia Berritzenek kudeatzen du, Azpeitiko Udalaren eta Etxebizitza Sailarekin elkarlanean.

Etxebizitza arloan pauso garrantzitsu bat izan da bulegoa zabaltzea; izan ere, bertan, etxebizitzaren arloko informazio oso, eguneratu eta pertsonalizatuaz gain, aholkularitza ere jaso dezakete herritarrek: indarrean dauden zerbitzu, laguntza edota baliabideen inguruko informazio eguneratua jaso ahal izango dute.

Etxebizitza Bulegoaren premia, iaz landutako Azpeitia 2030 Plan Estrategikoan ondoztatu eta zehaztu zen herritarren etxebizitza premiei erantzuteko erronkaren baitan. Horri lotuta garatu zen Etxebizitza Planean lau ildo nagusi zehaztu ziren, eta horietako bati erantzuten dio Etxebizitza Bulegoak:

Etxebizitza-plana garatzeko tresna da etxebizitza-bulegoa

- Arreta pertsonalizatua informazio osoa eta aholkularitza zerbitzu integrala eskaintzea
- hutsik dauden etxebizitzak mobilizatu eta alokairura bideratzea
- babes ofizialeko etxebizitza berriak sustatzea eta
- etxebizitza parkearen eta eraikinen birgaitzea sustatu bizigarritasuna, irisgarritasuna eta energia efizientzia hobetuz.

ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO BITARTEKARITZA

- Bitartekaritza programa
- Etxebizitza hutsak mobilizatzeko Azpeitiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioa
- Herriko etxebizitzak alokatzeko bitartekaritza zerbitzua
- Etxebizitza alokairuan jartzeko bitartekaritza
- Etxebizitza alokairuan hartzeko bitartekaritza
- Etxebizitza hutsak mobilizatzeko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak
- Bizigune programa (informazioa eta laguntza)
- Asap programa (informazioa eta laguntza)

Eusko Jaurlaritzak zein Azpeitiko Udalak eskaintzen dituzten dirulaguntza programei buruzko informazioa

BIRGAITZE LAGUNTZAK

Herriko etxebizitza parkearen irisgarritasuna hobetu, efizientzia energetikoa lortu eta energia berriztagarriak ezartzeko udal diru-laguntza lerro berria jarri zen martxan iaz, eta bide horri jarraitzen dio udalak Etxebizitza Planean zehaztutako helburuei erantzuteko politika eta neurrien barruan.

Diru-laguntza lerro honetara 200.000€ bideratu ditu Udalak eta laguntza honen bidez bi helburu nagusiri erantzun nahi zaio; alde batetik, etxebizitza parkearen irisgarritasuna hobetzea, eta, beste aldetik, etxebizitzaren efizientzia energetikoan eragin eta energia berriztagarrien instalazioak sustatzea.

LAGUNTZEN NONDIK NORAKOAK

Etxebizitza jabego edo komunitateek zein norbanakoentzako laguntzak dira. Beraz, norbere etxean zein etxepean egindako hobekuntza edo obrak lagunduko dira diruz. Bereziartuak zehaztu duenez, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako obrak lagunduko dituzte diruz eta horretarako 200.000 €ko diru-poltsa du udalak. Laguntza eskatzeko azken eguna, berriz, urriaren 31a izango da. Handik aurrerako eskaerak datorren urteko laguntza deialdian sartuko dira. Informazioa zein eskaerak Enparan kaleko Etxebizitza Bulegoaren bidez egin beharko dira.

Irisgarritasunaren lineari dagokionez, etxepeko igogailua jarri edo berritzea, zein irisgarritasuna hobetzeko eginiko inbertsio edo obrak lagunduko dira alde batetik. Norbanakoen kasuan, berriz, etxebizitza barruan eginiko aldaketak ere lagunduko dira. Hala nola, bainugela irisgarriago egitekoak, banaketa hormetan eginikoak, pasoko ateak....

Efizientzia energetikoan ere komunitatearen estalkian eginiko obrak lagunduko dira. Etxebizitzetan berriz, isolamendua, galdara edo leihoak aldatzeko laguntzak emango dira. Energia berriztagarrien kasuan ere, eguzki plaka, aeroterminia edo bestelako teknika berriztagarrien ezarpena lagunduko da komunitatean, zein banaka.



Etxebizitza parkearen diagnostiko eta jarraipenerako tresna sortu du udalak

Azpeitiko Udalaren lehentasun nagusienetarikoa da azpeitiarren etxebizitza beharrei erantzutea. Etxebizitza bat izatea eskubide subjektibo gisa aitortua dago eta erakunde publikoen betebeharra da eskubide hori bermatzea. Lanketa horretan, eta Azpeitiko etxebizitza parkea aztertu eta baliabide eta neurri egokiagoak hartu asmoz, etxebizitzaren inguruko azterketa eta barne gestiorako aplikazio edo tresna bat sortu berri du Gislán kooperatiba txikiarekin, elkarlanean.

Etxe hutsen kopurua, kokapena, antzintasuna, zer egoeratan dauden, etab. jasoko da lan-tresna berriarekin

Azpeitiko Udalak herritarren etxebizitza beharrari erantzun asmoz, hainbat neurri hartu ditu, azken urteotan. Bide horretan, batetik, etxebizitza premia neurtzeko hainbat azterketa egin dira, eta bestetik, neurri konkretuak hartu ditu. Besteak beste, gazteentzat eta zailtasunak dituzten sektoreentzako alokairuko laguntzak edota babes publikoko etxebizitzaren eskaintza. 2022ko otsailean, egindako azterketak oinarri hartuta, Etxebizitza Plana aurkeztu zuen. Bertan, etxebizitza politikan jauzi berri bat emateko helburuz, hainbat lan ildo desberdin zehazten dira. Sortu berri duen lan-tresnaern bitartez etxebizitza parkearen diagnostiko eguneratua izango du udalak.. Etxe hutsen kopurua, kokapena, antzintasuna, zein egoeratan dauden edota etxebizitza parkeari loturiko beste hainbat informazio eguneratu ere eskura izango ditu. Modu horretara, abian diren neurrien eraginkortasuna neurtzea da helburua. Hala, tresna horrek, etxebizitza hutsak merkaturatzeko neurri berriak hartzeko oinarria eskainiko die. Helburua azpeitiarren etxebizitza beharrari erantzuteko ahalik eta etxebizitza politikarik eraginkorrena egitea baita

Etxebizitza hutsetatik abiatutako politikak daramatza aurrera udalak. Planean jasota duen bezala eta etxebizitza parkearen jarraipena egiteko aplikazio edo lan-tresna hau ere bide horretan

urrats bat gehiago da. Azpetian, landa eremuko banakako etxebizitzak kenduta, 6.064 etxebizitza daude eta horietatik % 9,5a hutsik daude, 581 etxebizitza huts, hain justu. Etxebizitza horien ia erdia alde zaharrean kokaturik daude, 215 etxebizitza zehazki.

Kontra, etxebizitza bat alokairuan hartu edo erosteko asmoz, berriz, 500 herritar inguru daude Etxebiden izena emanda. Datuek, beraz, argi erakusten dute estrategikoa dela etxebizitza huts horiek bizitoki bilakatzeko neurriak hartzea. Eta bide horretan, adibidez, garrantzi berezia hartzen du, Azpeitiko Udalak, jada abian duen alde zaharreko esku hartze propioak.

Gislan kooperatiba txikiak garatu du aplikazioa, udalak emandako datuetatik abiatuta. Erroldako, etxebizitza erroldako, katastroko, ur kontsumoko, Hondasun Higiezen gaineko Zergako eta etxebizitzaren ikuskapen teknikoko datuak sartu dituzte aplikazioan. Datu horiek prozesatu eta uztartu dituzte, datuak prozesatzeko teknikak erabilia eta etxebizitza parkea osatzea eta informazioa osatu dute.

Etxebizitza parkearen erabilgarritasunaren datu irekirik ez dago. Hala ere, Eustatetek ohiko etxebizitzaren proportzioak ematen ditu eta horiek azaldu ditu: Azpeitiko etxebizitzaren % 14a ez dira ohiko bizileku. Zenbateko hori Urolako eta Gipuzkoakoaren azpitik dagoela azaldu du: Urola bailarako tasa % 19 da eta Gipuzkoakoa tasa % 15koa.

Etxebizitza politikarik eraginkorrena gauzatzeko baliabideak jartzen jarraitzen du Udalak



www.azpeitia.eus

Etxebizitza Bulegoa

Enparan Kalea 34

943 15 71 83 · aberritzen@azpeitia.eus

Ordutegia:

Udako ordutegia (maiatzetik urrira)

Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:30era

Neguko ordutegia (urritik apirilera)

Astelehenetik ostiralera (ostegunetan salbu):

8:00-13:30 eta 14:30-17:30

Ostegunetan: 10:00-13:00 eta 15:00-19:00